

GARIBALDI ETA MAFIAREN SORRERA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Sizilia, 1860. Giuseppe Garibaldik (1807-1882) eta haren mila gudariak uhartea mendean hartu eta, hala, Bi Siziliako Erresuma deuseztatu zuten. Hau da, mila *ator gorrik* armada borboitar askoz indartsuagoa menderatu zuten. Halako balentria Italiaren batasunaren pasarte heroikoenetakoa izan zen askorentzat. Baina beste zenbaitek laguntza estraofizialari egotzi diote txikiak handia jan izana; uharteko zenbait talde armatuk Garibaldirekin bat egin zuten borboitarren aurka.

Talde horiek Siziliako lur jabe handien soldatapeko kideek osatzen zituzten, jauntxoaren interesak defendatzeko eta patrikak betetzeko indarkeria, estortsioa eta mehatxua erabili ohi zutenak. Garibaldiren gudarietako batek, Ippolito Nievok, hauxe idatzi zion Bice Melzi Gobio lehengusinari Marsalan sartu eta hilabete eskasera: “Hemen iraultza apa- la izan da beti edo, hobe esanda, ez da inoiz existitu”. Ez latifundistak ez haien soldatapekoak ez zituen Garibaldiren kausak bultzatzen. Berez, Frantzisko II.a erregearen gobernu nahiko permissioa zen talde horien legez kanpoko jarduerekin, betiere kontrolpean zituztela eta haien sarea zabalduko ez zela ziurtatuta. Eta Siziliako jauntxo edo *capo*-ak egoerei zukua ateratzeko sena zutela erakusten hasi ziren.



MUSEO DEL RISORGIMENTO DI PALERMO

Garibaldiren mila gudariak Marsalan (Sizilia) lehorreratzen, 1860ko maiatzaren 11n. Mila horiek ez ziren ziurrenik uhartea konkistatzeko nahikoak izango, bertako zenbait talde armaturen laguntza izan ez balute.

Borboitarrak egotzita, Garibaldik ez zuen botere hutsunea betetzeko lana berretzat hartu. Buruzagiak Erroma zuen jomuga, eta tropa frantziarrek defendatzen zuten Vatikanoa hartzea erabaki zuen. Baina Piamonteko errege Viktor Emanuelek ez zuen gatazka korapilatzerik nahi; Aita Santua eta Frantzia nahasita, ordura arte lortutakoa galtzeko beldur zen. Eta Garibaldiren eraso geldiarazi zuen. Buruzagi militarren men egin zuen, eta Viktor Emanuel II.a Italiako erregetzat aitortu zuen 1860ko urriaren 26an.

Giuseppe Carlo Marino historialari siziliarrak *Storia della Mafia* (1998) la-

nean dionez, Garibaldi “ez zen fin ibili jarraitzaile siziliarren dohain moralak eta aurrekari moralak aukeratzean”. Eta Sizilia *jarraitzaile* horien eskuetan utzi zuen.

Urte gutxian mesede, izu eta eragin sarea hedatu zuten uharteko eliza, udal eta negozioetan. XIX. mendea amaitu baino lehen Siziliako Mafia ondo antolatutako egitura zen, eta lehen kolpe entzutetsua jo zuen, 1893ko otsailaren lehenean, Emanuele Notarbartolo bankari eta politikaria hil zuenean. Italia jaioberrian *cosa nostra* lehen pausoak ematen hasi zen. ■



FILMMAKER IQ

Zinema eta krispetak 1929an ezkondu ziren

1929ko Wall Streeteko porrotak eta ondorengo krisialdi ekonomikoak batu zituen zinema eta krispetak. Lehena go, arto lehertua kalean jateko ohitura zabaltzen ari zen, baina zinema mutua elitistegia zen oraindik, mokadu xumea aretoetan baimentzeko.

Film soinuaduneri esker, zinema nabarmen jendarteratu zen, baina krisia izan

zen krispetak aretoetan sartu zituena: zinema denbora-pasa merkeenetakoa zen, artoa ere merke zegoen, eta krispetak oso erraz prestatzen dira.

Harremana Bigarren Mundu Gerran estutu zen, azukre eskasiak joko kanpo utzi baitzituen gozoki eta freskagarriak. Orduz geroztik binomioak telebista izan du etsai, eta mikrouhin labea aliatu. ■